


IRALE-DOLARETXE. R300 (PROIEKTUA). 2016-2017 IKASTURTEA

LANA: **Adierazpen plastikorako oinarrizko osagaiak**

IKASGAIA: Plastikako, Ikusizko eta Ikus-entzunezko Hezkuntza (DBH 2)

EGILEA: Olatz Landa Telleria



Olatz Landa: Osaka, 2016

Arloa: Plastikako, Ikusizko eta Ikus-entzunezko Hezkuntza
Gaia: Irudien adierazpen plastikorako oinarrizko osagaiak
Maila: DBH 2
Saioak: 10
<p>Proposamenaren justifikazioa:</p> <p>Errealitatea irudi konplexuz osatuta dago. Errealitate hori grafikoki adierazteko, tresna baliagarria izan daiteke irudi konplexua OINARRIZKO ELEMENTU GRAFIKOETAN (puntua, lerroa, plano eta ehundura) deskonposatzea eta, gero, oinarrizko elementu horien bitartez berreraikitzea irudia.</p> <p>Unitate honen justifikazioaren muina da ikasleek zailtasunak izan ohi dituztela prozesu hori garatzeko.</p>
<p>Arazo-egoera:</p> <p>A. Testuingurua:</p> <p>Gizartean, errealitatearen imitazioarekin lotzen da artea, eta hori egiteko trebezia goraiatzen da. Etengabe entzuten da norbaitek zer ondo irudikatzen duen errealitatea, hura zintzo eta zehatz adierazten duenean. Baina iritzi orokortu horrek frustrazioa sortzen du gaitasun hori ez dutenen artean. Horrekin batera, kontuan hartu behar da ikasleen imajinario artistikoa oso mugatua dela.</p> <p>B. Arazoa:</p> <p>Plastika arloari lotuta, Bilboko Guggenheim museora eraman ditugu DBHko 2. mailako ikasleak, <i>Espresionismo abstraktua</i> izeneko margolan-erakusketa ikustera. Halako lanak ikustean, ikasleak harritu egin dira, eta kritikatu ere egin dituzte: ea horiek zer diren, zer adierazten ote duten, edonork egin ditzakeela horrelakoak...</p> <p>Halako adierazpenak entzunda, erronka hau luzatu diegu ikasleei: "Ausartzen al zarete, errealitatea eta emozioak modu garden eta zehatzean islatu beharrean, estereotipoetatik urrunduta eta modu abstraktu eta adierazkorrean adierazten?"</p> <p>C. Helburua:</p> <p>Adierazpen plastikorako osagaiak baliabide moduan ulertzea, ikasleen sormena garatzeko.</p>

Ataza:

Oinarrizko 4 elementu grafikoak landuta (puntua, lerroa, plano eta ehundura), ikasleek 4 artelan sortuko dituzte –elementu bakoitzarekin bat–. Ondoren, artelan horiekin erakusketa txiki bat egingo dute ikasgelan, eta artelanok egiteko prozesuaren berri emango diete gainerako ikasleei.

Oinarrizko kompetentziak**A. Oinarrizko zehar-kompetentziak**

- Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako kompetentzia. Jarduerak: 1, 2, 3, 4, 5, 6
- Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia. Jarduerak: 1, 2, 3, 4, 5, 6
- Elkarbizitzarako kompetentzia. Jarduerak: 3, 4, 6
- Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako kompetentzia. Jarduerak: 1, 2, 4, 5, 6
- Norbera izaten ikasteko kompetentzia. Jarduerak: 3, 4, 5, 6

B. Oinarrizko diziplina barneko kompetentziak

- Arterako kompetentzia. Jarduera guztiak.

Helburu didaktikoak

- Adierazpen plastikoaren osagaien gaitasun estetikoak eta adierazkortasuna balioestea eta erabiltzea.
- Adierazpen plastikorako osagaiak bereiztea eta grafikoki adieraztea.
- Irudi bat konposatzeari dagokion gaitasuna lantzea.
- Norberaren eta gainerakoen adierazpen estetikoak aintzat hartzea eta errespetatzea, kritikoki, estereotipoak eta konbentzionalismoak gainditzeko.
- Banaka edo taldeka, arte-proiektu baten plangintza, prozesua eta emaitza nork bere gain hartzea eta egitea.
- Teknlogiek eskaintzen dituzten aukerak ezagutzea eta erabiltzea.
- Ikasleak bere lanaren inguruko ahozko azalpenak ematea.

Edukiak

- Puntua. Puntuaren adierazkortasuna ulertzea eta irudikatzea.
- Lerroa. Lerroen sailkapena identifikatzea.
- Planoa. Planoaren definizioa ulertzea, forma lauak sortzeko.
- Ehundurak. Ukimenezko eta ikusmenezko ehundurak esperimendu eta erabiltzea.

- Kideen jarduerak errespetatzea.
- Gaiarekiko interesa eta jakin-mina adieraztea.
- Lanak txukun eta garbitasunez egitea.
- Gaiarekiko autonomia adieraztea.

Jardueren sekuentzia

A) Hasierako fasea

1. jarduera: irudiak deskonposatzen

B) Garapenaren fasea

2. jarduera: informazioa biltzen
3. jarduera: adierazpen plastikorako osagaiekin sortzen eta sortutako irudiak alderatzen
4. jarduera: ekoizpen artistikoa aztertzen

C) Aplikazioaren eta komunikazioaren fasea

5. jarduera: artelanak sortzen eta lanak taldean aurkezten

D) Orokortzearen eta transferentziaren fasea

6. jarduera: egindako lanak ebaluatzen eta ikasitakoa aplikatzen

Ebaluazioa

Irizpideak eta lorpen-adierazleak

- 1. Zenbait motatako mezuak sortzeko gai izatea, eta horretan, modu kontzientean erabiltzea bere interes espresibo eta komunikatiboekin bat datozen euskarri eta prozedura artistikoak.**
 - Modu kontzientean eta intenzioz erabiltzen ditu baliabide eta teknika plastikoak eta bisualak, mezu propioak osatzeko.
 - Lan-proiektuak modu argian eta duen helburuari atxikita amaitzen ditu.
- 2. Bere mezuak sortzean, elementu eta baliabide plastikoen eta bisualen bidez espresatzeko eta komunikatzeko gai izatea.**
 - Adierazpen original eta irudimentsuak egiten ditu, eta gero eta lan hobeak egiten saiatzen da.
 - Mezuak sortzen eta manipulatuak ditu, lan-prozesuen barnean.
 - Modu kontzientean eta intenzioz erabiltzen ditu baliabide plastikoak –formak, koloreak, egiturak, etab.–, mezu propioak osatzeko.

3. Pentsamendu sortzaile eta originala lantzeko prozesuan aurrera egitea, eta horretan, eskura dituen baliabideak erabiltzea bere ideien, sentimenduen eta bizipenen berri emateko.

- Irudimena du bere bizipenak eta egin dituen aurkikuntzak adierazteko.
- Beste pertsona batzuen ideiak bilatzen eta berrerabiltzen ditu, bere sormen premietara egokituta.

4. Proiektu artistiko bat egiteko prozesuko urratsak planifikatzeko eta garatzeko gai izatea, eta horretan, zenbait proposamen egin eta fase bakoitzaren komenigarritasunaren aldeko arrazoiak emateko gai izatea.

- Bere lan-prozesuaren gaineko hausnarketak egiten ditu, ahozkoak eta idatziak.

5. Espresibide eta adierazpen estetikoak identifikatzeko gai izatea, eta den-denak aberastasun-faktoretzat hartzea.

- Onartu egiten ditu bere gustuekin bat ez datozen adierazpenak.
- Taldean egindako lan artistikoetan parte hartzen du, eta errespetatu egiten ditu besteren ekarpenak.
- Adierazpen original eta irudimentsuak egiten ditu, eta gero eta lan hobeak egiten saiatzen da.

Tresnak

- Ikaslearen lan-koadernoa
- Galdetegiak
- Behaketa
- Autoebaluazioa
- Ahozko aurkezpenen ebaluazioa

Jardueren sekuentzia:

Hasierako fasean, irudi bat deskonposatuko dute ikasleek, besteak beste, adierazpen plastikoko oinarritzko osagaietan; ondoren, informazioa jasoko dute gaiari buruz, Interneteko hiru helbide erabiliz. Hasierako irudi edo zirriborroak online egingo dituzte, eta, Driven bidez, ikaskideekin partekatuko. Gero, ikasleek zirriborroak alderatuko dituzte.

Ondoren, ikasleek ekoizpen artistikoaren azterketa egingo dute, artisten lanak ezagutzeko eta, azken finean, estereotipoak eta konbentzionalismoak gainditzeko.

Bukatzeko, ikasle bakoitzak 4 artelan sortuko ditu bere lan-koadernoan, gelan

ikaskideei aurkeztuko dizkie eta haiek ebaluatu egingo dituzte, ea landutako edukiak egoki islatzen diren neurtzeko.

A) Hasierako fasea

1. jarduera (1 saio). Arte-solasaldi dialogikoa: IRUDIAK DESKONPOSATU.

Ikasleek gaiari buruz aurretik duten ezagutzaz jabetzeko eta hura partekatzeko, 3 artelani buruzko galdetegi-txantiloia beteko dute, banaka. Gero, talde handian, arte-solasaldi dialogikoa egingo dute, bakoitzak bere ikuspuntua, ideiak eta ezagutza partekatzeko.

Deskonposatu irudiak			
	Zer elementu ageri dira?	Zer emozio adierazi nahi du?	Deskribatu irudia, eta jarri izenburua.
 Wassily Kandinsky			
 Antoni Tapies			
 Roy Lichtenstein			

Ondoren, ikasleekin adostuko ditugu unitate didaktikoaren nondik norakoak: zer egitasmo dakargun eta zer lortu nahi dugun.

B) Garapenaren fasea

2. jarduera (1 saio). Adierazpen plastikorako osagaiei buruzko informazioa bildu, eta txantiloia bete.





Hasteko, ikasleek esteka hauetan klik egin eta aurkezpenak aztertuko dituzte:

<http://es.slideshare.net/nanu373/ikus-hizkuntzako-elementuak-2>

<http://es.slideshare.net/plasticabyla/elementos-visuales-de-la-expersin-plstica-punto-lnea-textura>

<http://es.slideshare.net/enplastica/los-elementos-basicos-del-lenguaje-plstico>

Aurkezpenak ikusi eta ikasitakoak oinarri hartuta, txantilo hau beteko dute ikasleek, banaka:

	DEFINIZIOA	EZAUGARRIAK	MOTAK	ADIERAZKORTASUNA
PUNTUA 				
LERROA 				
PLANOA 				
EHUNDURA 				

3. jarduera (1 saio). Adierazpen plastikorako osagaiekin sortu, eta irudiak alderatu.

Beheko estekan klik eginda, ikasle bakoitzak bi irudi egingo ditu han aurkituko dituen 4 elementuetako bakoitzarekin. Gaia: urtaroak (negua, udazkena, uda eta udaberria). Ikasleak kontuan izango du irudiak ez dituela ausaz egin behar, *intentzios* baizik; *kontzienteki* egin behar ditu. Hots, urtaroa aukeratuko du lehenik, eta gero hautatuko du kolorea, elementu-kopurua, tamaina... Ikasleak berak erabakiko du nola jokatu, eta kontzienteki eta modu kontrolatuan jarriko ditu elementuak.

<http://www.educacionplastica.net/MenuLenguaje.htm>


Zortzi irudiak sortu eta gero, ikaskideekin partekatuko dituzte irudiok Driven bidez. Irudiak elkarrekin trukatu ondoren, binaka alderatuko dituzte irudi guztiak. Ondoren, bakarka, ikasle bakoitzak irudien arteko hiru antzekotasun eta hiru ezberdintasun idatziko ditu, gutxienez. Hona hemen ideia batzuk konparazioa egiteko:

- Ea irudikatzen duena konplexua den.
- Ea irudikatzen duen multzoa gaiarekin lotzen duen.
- Ea lanetan sortutako elementuen ezaugarriak zein diren.
- Ea zer kolore erabiltzen duen.





Antzeko alderdiak			
Bereizten dituzten alderdiak			

4. jarduera (1 saio). Ekoizpen artistikoa aztertu.

Artelana eta artista lotzeari ekingo diote ikasleek jarraian. Taulan azaltzen diren artelanen eta artisten izenak lotuko dituzte, binaka. Artistei eta haien obrari buruzko informazioa jasotzeko, Internet erabiliko dute.



Piet Mondrian
Dora Salazar
Antoni Tapies
Kazimir Malevich
Elena Odriozola
Julian Schnabel
Bridget Riley
Jackson Pollock
Frida Kahlo
Mark Rothko
Adolph Gottlieb
Ansem Kiefer
Paul Klee
Niki de Saint Phalle
Man Ray
Louise Bourgeois
Joseph Beuys
Jorge Oteiza
Robert Rauschenberg
Uxue Lopez



C) Aplikazioaren eta komunikazioaren fasea

5. jarduera (5 saio). Artelanak sortu, eta lanak taldean aurkeztu.

Orain arteko jardueretan, elementu plastikoak landu dituzte ikasleek, eta horiek zer adierazkortasun duten ere bai. Oraingoan, berriz, ikasitakoak praktikan jarriko dituzte.

5.1. Ikasleek, banaka, lau artelan sortuko dituzte lan-koadernoan:

1. Tamaina eta kolore ugari erabiliz, IRUDI ABSTRAKTUA egingo dute, puntuaren adierazkortasuna kontuan izanda (kontzentrazioa, sakabanaketa...).

Adibideak:



2. Joseba Sarrionandiaren poema bat irakurri ondoren, testua interpretatu egingo dute lerro mota ugari erabiliz (egonkorrak, etenak, zuzenak, meheak...):

ESPERANTZA

Gauzak ezkutatzen trebea zen, eta
beti aldean zerman arren
funtzionarioek katxeoetan ez zioten
atzeman egundo.

Ez zen izkribu politiko
arriskutsua,
ez errebista pornografiko
eskuz dastatua,
ez ihesbidea zulatzeko
tresna baliotsua.

Guk bagenekien aldean zeramana
esperantza zela.

'Baina zer da esperantza?'
galdetzen genion.

'Heltzear den zori onaren seinalea'
zioen batzuetan irribarrez.


'Hor patio ertzean hazten den lorea'
zioen bestetan, trufaz.

Gaur, 'itxarotea' dela esan du.
Esperantza
egunik egun itxarotea besterik
ez dela.

(*Kartzelako poemak*, 1992. Poesia)


Joseba Sarrionandia

Adibideak:



3. Irudi geometrikoak erabiliz (triangeluak, karratuak, zirkunferentziak, erronboak...), mugimendu-efektua adierazten duen konposizioa egingo dute ikasleek. Efektu hori errepikapenekin, gainjartzeekin eta irudien tamaina-aldaketekin lor daiteke.

Adibideak:



4. Lan-koadernoko orrialde bat 8 zatitan banatuta, ikusizko 4 ehundura marraztuko dituzte bertan, eta ukimenezko 4 ehundura itsatsi.

Adibideak:



5.2. Ondoren, lanak taldean aurkeztuko dituzte:

Sortutako artelanekin, ikasleek erakusketa txiki bat antolatuko dute gelan. Ikasle bakoitzak bere lau artelanetatik bat aukeratuko du beste ikaskideen aurrean aurkezteko. Ideia, prozesua –plangintza eta teknika–, eduki dituzten zailtasunak eta emaitzari buruzko hausnarketa azalduko dute.

D) Orokortze- eta transferentzia-fasea

6. jarduera (1 saio). Ebaluatu dezadan egindakoa. Antzeko beste egoera batean, gai izango ote naiz prozesua berregiteko?

6.1. Hasteko, egindako lanak ebaluatuko dituzte:

Ikasle bakoitzak txantilo hori bete behar du ahozko aurkezpena baloratzeko.

Artelanen ahozko aurkezpenen balorazioa					
	1	2	3	4	5
Ulertzeko erraza izan da.					
Hitz egitean, ondo erabili ditu tonua, abiadura, begirada...					
Hitz betegarri gutxi erabili ditu (bada..., eee..., esto...)					
Artelana egiteko ideia azaldu du.					
Artelanen balorazioa					
Irudi abstraktua osatzea lortu du.					
Joseba Sarrionaindiaren testuaren kontzeptua bereganatu du.					
Mugimenduaren sentsazioa transmititzen du.					
Kalitate askotako elementuek osatzen dute ehunduren katalogoa.					

Balorazioa: 1 Oso eskas, 2 Eskas, 3 Nahikoa, 4 Egokia, 5 Oso egokia

6.2. Bukatzeko, ikasleek gogoeta egingo dute unitate didaktikoan aplikatu dituzten prozedurez.

Unitate didaktiko honetan, hainbat kontu ikasi ditugu: adierazpen plastikorako osagaiak erabiltzen, interpretatzen eta modu sortzailean erabiltzen. Bestalde, unitatearen xedea izan da adierazpen plastikorako osagaiak baliabide moduan ulertzea, gure sormena garatzeko bide bat

direla kontuan izanda. Jakina, xede hori lortuta, gai izan beharko genuke ikasitakoak antzeko egoera batean aplikatzeko. Hona bada, hori bideratzeko beste arazo-egoera bat:

Arazo-egoera

Urtero, ikasleek ikasketa-bidaiarako dirua biltzeko hainbat produktu jartzen dituzte salgai. Aurten, kamisetak eta oihalezko poltsak saltzea proposatu dute. Eta kamisetetan nahiz oihalezko poltsetan azalduko den irudia diseinatzeko enkargua enpresa profesional bati egin beharrean, DBH 2ko ikasleei luzatu diegu irudi grafiko hori diseinatzeko erronka.

Ataza:

Kamisetetan eta oihalezko poltsetan inprimatuko den irudia diseinatzea. Adierazpen plastikorako osagaiak aintzat hartu beharko dituzte irudia diseinatzeko, eta, irudiarekin batera, institutuaren izena ere azalduko beharko dela.

BIBLIOGRAFIA

ASKOREN ARTEAN: *Plastika eta Ikus Hezkuntza I*, Ikasmina, 2007

<http://armiarma.eus/> (Literatura-webgunea)

<http://es.slideshare.net/enplastica/los-elementos-basicos-del-lenguaje-plastico>
(Hizkuntza plastikoaren oinarritzko elementuak)

<http://es.slideshare.net/nanu373/ikus-hizkuntzako-elementuak-2> (Ikusizko hizkuntzaren elementuak)

<http://es.slideshare.net/plasticabyla/elementos-visuales-de-la-expersin-plastica-punto-lnea-textura> (Adierazpen plastikoaren ikusizko elementuak)

http://heziberri.berritzegunenagusia.eus/heziberri_es/ (Berritzegune Nagusia, Heziberri 2020ri buruzko gidak eta ikasgelarako tresnak)

<http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-hezi2020/eu/> (Eusko Jaurlaritzaren Heziberri 2020 Plana, dokumentuak eta tresnak)

http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-573/eu/contenidos/informacion/heziberri_2020/eu_2_proyec/bigarren_egitasmoa.html (Oinarritzko Hezkuntzako Curriculum, 236/2015eko Dekretuaren II. eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea)

<http://www.educacionplastica.net/MenuLenguaje.htm> (Ikusizko hizkuntzaren elementuak)

www.susa-literatura.eus (Literatura-webgunea)